

KONTROL MOZIOA

PARTE ZAHARREN HUTSIK DAUDEN LOKAL BATZUK OSTALARITZA- ESTABLEZIMENDUEN BILTEGI BIHURTZEA

EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Parte Zaharrean hutsik diren lokal batzuk ostalaritza-establezimenduak biltegi bihurtzearen gaineko **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran aztertzeko. Kontrol mozio hau 2026ko urtarrilaren 15ean Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Gai honen inguruan aurkeztu ditugun beste ekimen batzuk egitekoan adierazi dugunez, Establezimendu Publikoen eta Jolasezko Jardueren Kokalekuak Arautzen dituen Udal-Ordenantzaren helburua da «*establezimendu publikoen eta jolasezko jardueren instalazioa mugatzea, lokal-mota horien artean gutxienezko distantziak ezarriz, era horretan, jarduera horiek sortzen dituzten zenbait ondorio gehigarri ekiditeko, eta, hala, auzokoak ez molestatzeko*». (Ordenantza Arautzailearen 1. artikulua).

Ordenantza arautzaile horrek "Zona beteen araubide berezia" ezartzen du. Honela definitzen du: «*Zona betetzat joko da bizitegi alde bat, baldin eta inguru horretako establezimendu publikoek eta jarduera sailkatuek 160 biztanleko 1 ratioa gainditzen badute eta, gainera, lokal horiek ondorio metatuek sortzen dituzten eragozpenen garrantzia zuzentze neurri arruntez konpontzerik ez badago*» (Ordenantza arautzailearen 14.1. art.).

Arauan xedatutakoa gorabehera, ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduetarako bideratutako edo erabilitako azalera, murriztu beharrean, handitzen ari da.

Hainbat faktorek eragiten dute hori; alde batetik, legearen zirrikitu bat erabiltzea taldez aldatu eta, horren bidez, jatetxetarako eta ostalaritzarako azalera handitzeko, merkataritza-espazioaren kaltetan.

Bestalde, azkeneko urteotan, jarduera horien beste kolonizazio modu batzuk ere ari gara ikusten, Parte Zaharrean, bereziki: biltegiak ezartzea, ostalaritzako jarduera nagusiarri lotuta daudenak eta horiei bakarrik zerbitzu ematen dietenak.

Modus operandi horren bidez, lehen elikagaiak, edariak eta abar biltegitartzeko erabiltzen zizutten espazioak libratzen ari dira beren lokaletan; hau da, lokalek daukaten leku guztia ostalaritza- edo jatetxe-jarduerarako bakarrik erabiltzeko aukera ematen die horrek. Hori guzti hori Parte Zaharrean. Eta ez dugu ahaztu behar lehenago ere eremu bete edo saturatu izendatu zela Parte Zaharra horrelako jardueren kontzentrazio handia zela eta. Aldi berean, biltegiak ugaritzeak auzoko merkataritza-espazioak murriztu egiten ditu.

Horregatik, Parte Zaharrear Bizi Auzo Elkarteak eta Parte Zaharreko Komertzianteen Elkarteak horren inguruan aipatutako kezkak kontuan hartuz, 2024ko ekainean kontrol mozio bat aurkeztu genuen, honako hau zioena:

“1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, lehenbailehen beharrezko administrazio- eta lege-urratsak eman ditzala, egoera konpenezina izan baino lehen, Parte Zaharreko lokalak ostalaritzako establezimenduen biltegi gisa bakarrik erabiltzeko lizentziak eta/edo baimenak urtebetez eteteko, eremu hori ostalaritza establezimenduz saturatuta baitago.

2.- Era berean, Udal Gobernuari eskatzen zaio, bere baliabideak edo kanpokoak erabiliz, HAPOa unean-unean aldatzeko behar diren lanak agintzea erabaki dezala, aldaketa horrek Parte Zaharreko lokalen erabilera-baldintzak arautu ditzan.

3.- Era berean, Udal Gobernuari eskatzen zaio Parte Zaharrear Bizi Auzo Elkarteak eta Parte Zaharreko Komertzianteen Elkarteak (Zaharrear) aurkeztutako idazkiari erantzun formala eta arrazoitua eman diezaiola”.

Lehenengo puntua gehiengoz onartu zen, eta gainerako biak aho batez.

Era berean, 2025eko uztailaren 24an, Udalaren Osoko Bilkurak, Eh Bilduk eskatuta, kontrol-mozio bat onartu zuen. Mozio horren ebazpen-zatiak honako hau zioen:

“1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, lehenbailehen beharrezko administrazio- eta lege-urratsak eman ditzala, egoera konpenezina izan baino lehen, Parte Zaharreko lokalak ostalaritzako establezimenduen biltegi gisa bakarrik erabiltzeko lizentziak eta/edo baimenak urtebetez eteteko, eremu hori ostalaritza establezimenduz saturatuta baitago.

2. Era berean, Udal Gobernuari eskatzen zaio, bere baliabideak edo kanpokoak erabiliz, HAPOa unean-unean aldatzeko behar diren lanak agintzea erabaki dezala, aldaketa horrek Parte Zaharreko lokalen erabilera-baldintzak arautu ditzan.

3. Era berean, Udal Gobernuari eskatzen zaio Parte Zaharrear Bizi Auzo Elkarteak eta Parte Zaharreko Komertzianteen Elkarteak (Zaharrear) aurkeztutako idazkiari erantzun formala eta arrazoitua eman diezaiola”.

Komertzianteen Elkarte (Zaharrear)”

Berriro ere, osoko bilkuraren gehiengo handi batek onartu zuen kontrol mozio hori.

Egia da Hirigintza Jasangarriko eta Etxebizitzako zinegotzi ordezkariak adierazia duela Parte Zaharreko Plan Bereziaren behin betiko onarpenarekin ez dela baimenik izango horrelako jarduerarik jartzeko. Hala ere, badirudi oraindik zalantza juridiko handi samarrak daudela aipatutako Plan Berezia onartzeko egunaz.

Bestalde, zinegotziak Plan Bereziaren hasierako onarpenarekin era guztietako baimenak eta/edo legeztatzeak behin-behinean etetea zekarrela ulertzen zela adierazi zuen arren, juridikoki eztabaidagarria izan daitekeen gaia denez, komeni da juridikoki sakon aztertzea eta, hala badagokio, berariaz erabakitzea baimen eta legeztatze horiek etetea eta hala iragartzea ere.

Hori dela eta, hauxe da gure **KONTROL MOZIOA**:

1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio berresteko Parte Zaharreko eremu saturatuan diren ostalaritza- eta/edo jatetxe-establezimenduen zerbitzurako bestetarako ez diren biltegiak izateko baimenak eta/edo legezkatzeak etetea, zuzenbide aldetik hala erabaki behar bada, hala erabakita.

2- Era berean, udal gobernuari eskatzen dio, hasita den alegazio-prozesua bukatutakoan, lehenbailehen onartu eta abian jartzeko Parte Zaharreko Merkataritza Birgaitzeko Plana, Zaharrean erakundearekin lankidetzan jardunda.

Donostian, 2026ko urtarrilaren 23an

Ricardo Burutaran Ferré
EH BILDU udal taldeko zinegotzia